

# 27,3 milioiko aurrekontua onartu dute EAJk eta PSE-EEk

Tolosako Udalak iaz baino 460.000 euro gehiago izango ditu; EAJk baieztatu duenez, «tolosarrak eta haien ongizatea jarri nahi izan dituzte erdigunean»; EH Bilduk adierazi du hauteskundeen ondorengo indar banaketa ikusituta, elkarlan «handiagoa» espero zuela //3



## ARRAUNA DENBORALDI BERRIRAKO PREST

JOSU ARTUTXA

Tolosaldeko Arraun Klubak 2020ko denboraldia aurkeztu du; iazko emaitza onak nabarmendu dituzte, eta harrobia lantzen jarraituko dute; 16 batel izango dituzte guztira, eta horietan 120 arraunlari ariko dira //7

## Elkarretaratze jendetsua, Tolosan gertatutako bortxaketa saiakera salatzen

Abenduaren 24ko gauean gizonetako bat 19 urteko emakume bat bortxatzen saiatu zen Larramendi auzoan; Ertzaintzan salaketa jarri ostean, ikerketa zabalik dago //5



# Txantxaenea inauguratu dute

Adunako Udalak eraikina egokitu du; Etxabeen liburutegia eta denda-taberna, sotoan haur txokoa eta atarian erretiratuentzat gunea prestatu dituzte



Igerabideren *Abezedarior* eskuz esku pasa zuten liburutegi berrira. J.M.



Herritarrek liburutegia eta azpiegitura berriak bisitatu ahal izan zituzten. J.M.

**Jon Miranda** Aduna

Katea osatu zuten abenduaren 19an Adunan. Udaletxetik, aurreko liburutegia kokatuta zegoen lekutik, Txantxaenea etxeraino eskuz esku pasa zuten Juan Kruz Igerabideren *Abezedarior* liburua, 2018an Espainiako Haur Literaturako saria eskuratu zuena. Liburutegian toki pribilegiatua izango du Igerabideren lanak, herriko Toni Muntadas-Primek idatzitako *El poder de la esperanza* liburuaren eta Xabier Berasaluzeren *Tarrapatan, pandero baten ibilbidea* liburuaren ondoan.

Gune ezberdinak izango ditu liburutegi berriak: haurrentzako bat, egunkari eta aldizkariak irakurtzeko beste bat eta ikasteko aparteko toki bat ere prestatu dute. KZguneko ordenagailuak erabiltzeko aukera izango da, baita ere, espazio berrian. Orain arte, plazan kokatuta zegoen haurrentzako lokala, hemendik aurrera Txantxaeneako sotoan egongo da eta gurasoek horretarako giltza eskuratuta erabili ahal izango dute. Aparteko sarrera izango du lokalak. Antzeko funtzionamendua izango du, eraikineko atarian kokatuta dagoen egiturak. 60 urtetik gorakoek udaletxean eskatu ahal izango dute bertara sartzeko giltza. Udalak bilera egingo du herriko erretiratuekin, txoko hori nola hornitu erabakitzeko.

Etorkizunean zabalduko den denda-tabernak ere eskainiko die zerbitzua bertan biltzen diren erretiratuei. Udalak lehiaketara aterako du denda-tabernaren kudeaketa eta hurrengo hilabeteetan jarriko da martxan.

# Gazteen sormen lanak saritu dituzte Zizurkilen

Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian banatu dituzte Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketako eta Booktrailer lehiaketako sariak

**Erredakzioa** Zizurkil

2019a urte oparoa izan da. Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketan 379 ipuin jaso dituzte eta «idazteko zaletasuna pil-pilean dago bailaran», liburutegiko arduradunen esanetan. A mailan 90 lan, B mailan 208, C mailan 50, D mailan 28 eta E mailan 3 lan aurkeztu dituzte.

Eguberri aurretik Liburuaren Astea antolatzen dute Zizurkilen eta aurtengoan, abenduaren 10a (Giza Eskubideen nazioarteko eguna) eta abenduaren 17a (migranteen nazioarteko eguna) kontuan izanik, hainbat ekintza antolatu zituzten. Kasualitateak kasualitate, lehiaketa honetan banatu den E mailako saridu-

nak, Xabier Ariznabarreta Olartek gai hau jorratu du *GIB* izeneko lanean. Gainerako kategorietako irabazleen izenak [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)-en ikus daitezke.

Booktrailer lehiaketan, berriz, DBHko lehen eta bigarren mailako kategorian, *Ezekiel* liburua aztertu duten gazteek irabazi dute saria, Ibai, Unax, Oihane eta Libek. DBHko hirugarren eta laugarren mailako kategorian, Gorka, Naiet, Iñaki eta Udane osatutako taldeak *Tximeletaren oihua* liburua aztertu eta horren inguruko booktrailerra egin ondoren jaso dute saria. Amaitzeko, Miren Zumeta izendatu dute bakarka egindako lanen kategoriako irabazle, *Ihes betea* liburuaren bideoa aurkeztuta.



Teodoro Hernandorenaren senitartekoek banatu zituzten sariak Zizurkilen. J.M.

## IRAGARKI LABURRAK

### Etxebizitza

**Alokairuan.** Etxe bat alokatzen da Tolosan, Alde Zaharrean. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Altzariekin. Interesa duenak deitu 677 00 00 05 edo 667 32 09 11 telefono zenbakietara.

### Lan eskaintza

**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun bat behar da Tolosan. Interesatuta dauden pertsonak deitu dezatela 688 888 207 telefonora, 12:00etatik 14:00etarako artean.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua

### IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak [iragarkilaburrak.eus](http://iragarkilaburrak.eus)-en

# 27,3 milioiko aurrekontua izango du 2020ak, oposizioaren botorik gabe

Emakumeen Etxeko obraren lehen fasea garatuko dute, eta Zumardi Txikiko eta Rondilla kaleko proiektuak idatzi; EH Bilduk «aldebakartasuna» leporatu dio gobernuari

## Itzea Urkizu Arsuaga

Joan den ekainean, agintaldi osorako zenbait adostasunen oinarriak itxita utzi zituzten EAJk eta PSE-EEK, sinatutako akordioan. Hitzarmen horren fruituetako bat izan da urte berrirako udal aurrekontua, eta joan den abenduaren 19an onartu zuten plenoan, oposizioaren aurkako botoekin: guztira, 27.375.195 euroko poltsa izango du Tolosako Udalak, datozen 12 hilabeteetarako.

Udalbarria antolaketa berriaren moldeei jarraituz, aurrekontu proposamenak ere egitura horri eutsi dio eta, beraz, hiru sail nagusitan banatu dituzte inbertsio eta proiektuak: Herritarrak sailera aurrekontuaren %44,05 bideratu dute; Antolakuntza arlora %27,84; eta, azkenik, %28,11 Lurraldera. Begoña Tolosa ogasun eta finantza zinegotziak azpimarratu zuen, «pertsonak ardatz» dituen aurrekontua diseinatzen saiatu direla: «Tolosarrak eta haien ongizatea erdigunean jarri nahi izan ditugu eta, horregatik, aurrekontuaren zatirik handiena Herritarrak sailera bideratu dugu».

Zenbaki orokorra %1,71 igo da iazko urte politikorekin alderatuta, eta 2020an Tolosako Udalak 460.000 euro gehiago izango ditu bere jardunerako. Horrela, urteko egitasmo azpimarragarrienak izango dira Emakumeen Etxeko obraren lehen fasea gauzatzea (280.000 euro), eta Zumardi Txikia berreskuratzeko nahiz Rondilla kalea eraberritzeko proiektuak aztertzea.

## INBERTSIOETARA, 1,6 MILIOI

Udal gobernuak inbertsioetat jo dituen proiektu eta obretara 1.670.000 milioi euro bideratu dituzte, 2020ko aurrekontutik.

Hasteko, Zumardi Txikia berreskuratzeko aukerak aztertuko dituzte eta, horri lotuta, bertako aparkalekuak birkokatze azterketa ere egingo dute. Bide beretik, Rondilla edo Pablo Gorosabel kalea berritzeko proiektua ere idatzi nahi du udalak, eta ho-



Joan den abenduaren 19an onartu zuten 2020. urte politikorako aurrekontua. I. URKIZU

retarako merkatari eta herritarrekin bildu.

Bi kasu horien harira, EH Bilduko oposizioak azaldu zuen honezkeroko egitaritza bidean behar luketen proiektuak direla, «2018ko nahiz 2019ko aurrekontuan hizpide zirelako». Andu Martinez de Rituertok proiektu horiek kudeatzeko modua gaitzetsi zuen: «Areago, 2020ko aurrekontuan bi egitasmo horiek ez dute partida zehatzik, 2019an erabili ez zen dirua erabiliko duzuelako horretarako. Baina zuek inbertsio berri bezala aurkeztu dituzue».

Emakumeen Etxeko proiektua ere 2020an gauzatu nahi dute, obraren lehen fasea eginez, eta 280.000 euro inbertituko dituzte horretarako. Kultur etxea eraberritzeko proiektua ere urte berriarekin idatzita izatea aurreikusitako dute (110.000 euro).

Abegi zentroan, berriz, obrak egin nahi ditu udalak, eta eguneko nahiz gaueko eskaintza berria antolatu, «boluntarioekin elkarlanean».

Hirigintza lanek ere tarte nabarmena izango dute urte berriaren eta, besteak beste, Laskoain kalean eta Gernikako Arbolan berrurbanizazio lanak egingo dituzte. Era berean, San

**Iazko udal aurrekontuarekin alderatuta, aurtengoak 460.000 euro gehiago izango ditu**

**EH Bilduk «elkarlan handiagoo» espero zuen, hauteskunde ondorengo indar banaketari begiratuta**

Frantzisko, Oria eta Paper kaleak berrituko ditu udalak, eta baita Euskal Herria plazako arkupeetako lurzorua ere.

Kirol ekipamenduei begira, azkenik, datorren udan ekingo diote Uzturpe pilotalekuko sabaia berritzeari.

## <<ZERBITZU HOBEA>> JOMUGAN

«Tolosarrei zerbitzu hobea ematea» 2020ko egitasmoen «erdigunean» ezarri dutela azaldu zuen Begoña Tolosak eta, inbertsioez harago, hainbat proiektu zerrendatu zituen ideia horren harira.

Udate «sendotzen» jarraitu nahi dute, eta administrazio elektronikoa garatu eta udaleko ekipamendu informatikoa berrituko dituzte horretarako.

Gizarte zerbitzuetara ekarpe-

na %8,7 handituko dute, eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzio kanpainak areagotzea da udalaren asmoa.

Garapen ekonomikoaren arloan, guztira, 838.000 euroko poltsa izango da 2020an: enpresentzako diru laguntza «berritzaileak» garatu nahi dituzte, eta Emari co-working gunean kanpaina berriak sortu. Halaber, Azoka «biziberritzen» jarraitzeko asmoa azaldu du gobernuak, eta turismoa bultzatzen jarraitzea, «bertako ekonomia sustatzeko».

Etxebizitza hutsen azterketa amaitzen denean, ordenantza berrikusi, eta 2021eko aurrekontuan izango du isla, «alokairua sustatzeko».

Azkenik, kultur eskaintzari begira, kontsumo azterketa egingo dute (64.000 euro), eta baita haur eta nerabeen inguruko azterketa ere.

Klima aldaketak sor ditzakeen erroñkei ere heldu nahi diote 2020an eta, beraz, Ferialekuan eguzki plakak ezartzea erabaki du udal gobernuak. Helburu berri lotuta, honako proiektuak zerrendatu dituzte, besteak beste: kaleko argiterian LED argiak ezartzen jarraitzea, Hiribus elektrikoa eskuratzeko eta auto elek-

trikoentzat karga puntuak jarritzea.

## EZTABAIDA ELKARLANAZ

EH Bilduko udal taldeak aurkako botoa eman zuen aurrekontuak onartzerakoan. Finean, «elkarlana ulertzeko modu desberdinak» dituztela azaldu zuen Andu Martinez de Rituertok, elkarlan «handiagoo» espero zuela zehaztuz: «Indar banaketa kontuan hartuta, eta guk ere zortzi zinegotzi ditugula gogora ekarriz, gure esperantza zen lanketa honetarako benetako elkarlana sustatzea. Gure ideia ez zen emendakinak aurkeztea, baizik eta aurrekontua batera lantzea. Zoritxarrez, aldebakartasunez jokatu duzue».

Modu horretan, 27,3 milioi euroko aurrekontuari begira, zenbait kritika egiteko baliatu zuen plenoa oposizioak. Nagusiki, aurrekontuak «ez du gastu erreala islatzen» EH Bilduren iritziz, eta kreditu aldaketa bidez funtzionatzea gaitzetsi zuten: «2019an 7,5 milioi euro erabili zenituzten kreditu aldaketetan, eta horrek aurreikuspen falta islatzen du».

Tokiko ekonomiaren kudeaketan ere desadostasun zenbait azaldu zituen EH Bilduk, eta ez zaie egokia iruditu larunbateroko azoketara bideratutako aurrekontua iazko bera izatea, Haragi azoka bereziko aurrekontua 11.000 euroan igo den bitartean. Bide beretik, publikitate ere hizpide izan zuten: «Poltsa berri bat zabaldu duzue publikitate eta komunikazio estrategia osoa garatzeko, eta egokia iruditzen zaigu. Baina, sarri, irudia saltzen duzue, egitasmoak sustatu beharrean».

Kritikei erantzunez, Begoña Tolosak kreditu aldaketak «tresnak» direla defendatu zuen. Olatz Peonek, berriz, «oposizioaren estrategia argitatzat» jo zuen EH Bilduk egindako hitz hartzea: «Oso gauza txikitari sartu zarete (...). Elkarlana mahai gainean dago, baina beste kontu bat da, oposizioak udal administrazioaren funtzionamendu arauak ondo ez ezagutzen».

# Babesgabetasun egoeran daudela salatu dute hainbat kidek

Enirio-Aralar Mankomunitateko hainbat udal ordezkari ohik, Tolosako epaitegian ikertu gisa deklaratu beharko dute «mendi bideak egokitzeko aldeko bozka emateagatik»



Abenduaren 30ean agerraldia eskaini zuten Enirio-Aralar Mankomunitateko kideek Donostian. REBEKA CALVO

## Rebeka Calvo

Aurreko legealdian Mankomunitateko udal ordezkari izan ziren zazpi pertsonak, tartean Abaltzisketako Jon Zubizarretak eta Amezketako Ainhoa Zuriarrainek, Tolosako epaitegian ikertu gisa deklaratu beharko dute, esan dutenez Enirio-Igaratza arteko bidea egokitzeko lanak egiteko aldeko bozka emateagatik.

Ainhoa Zuriarrain Amezketako udal ordezkariarekin, eta Jon Zubizarreta Abaltzisketako udal ordezkariarekin batera egin zuten agerraldia Aramako Aloña Urretabizkaiak, Beasaingo Elena Ruizek, Lazkaoko Aitor Altunak eta Ordiziako Jose Miguel Santamariak, abenduaren 30ean. Guztiak izan ziren udal ordezkariak pasa den legealdian Enirio-Aralar Mankomunitatean eta orduan eman zuten Aralarren mendi bide bat egokitzeko aldeko bozka. «Aldeko bozka hori emateagatik auzipetuak izan gara eta gure egoera pertsonalaren berri eta gertatzen ari den bigarreneko azalpenak» eman nahi izan dituzte. Mankomunitateko zazpi udal ordezkari ohiek EHNE eta ENBA sindikatuen eta Aralarreko Baserritarren Elkartearen babes zabala izan zuten Donostian eskainitako agerraldian.

## HAMASEI PERTSONA

Urtarrilaren 27an eta 29an dekla-

ratuko dute Tolosako epaitegian ikertu bezala, hain zuzen Eguzki eta Landarlan talde ekologistek jarritako salaketa baten harira. Salaketa hori bide penaletik jarri zuten Ingurugiroaren eta Lurralde Antolaketaren aurkako ustezko delitu batengatik. «Hilabete barru ikertu gisara deklaratzera joan beharko dugu Tolosako epaitegietara. Ezin ahaztu gure antzeko egoeran dauden Mankomunitateko idazkaria, lau teknikariak eta Foru Aldundiko politikariak ere. Hamasei guztira, hamasei pertsona auzipetuak mendian mendi-bideak egokitzegatik», esan du Ainhoa Zuriarrain Amezketako ordezkariak.

«Enirio-Igaratza arteko bidea egokitzeko lanak egiteko aldeko bozka eman genuen, aurrez Enirio-Aralar Mankomunitateak, Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako plan batean oinarrituta», azaldu du. «Lan hauek egiteko burutu den prozesu administratibo osoan ez da kontrako txosten tekniko edo juridikorik izan», gaineratu du.

Egoera honen aurrean babesgabetasun egoera batean daudela salatu dute udal ordezkari ohiek eta hori dela eta Mankomunitateko lehendakariarengana bitan jo dutela esan du: «Gure defentsa juridikoaren kostuak Mankomunitateak bere gain hartzeko eskatu diogu. Manko-

munitatearen baitan demokratikoki hartutako erabakiak izan baitira. Eskari honen aurrean ez dugu inolako erantzunik jaso lehendakariaren aldetik, nahiz eta jakin badakigun 15 udaletara korreo elektronikoko bidez zuzendu dela, oraindik ere gure kezka eta babes eza areagotuz». «Borondatea izanez gero, Mankomunitateak auzipetuei babes ekonomiko emateko ez dago arazo juridikorik», gaineratu du.

Horiek horrela, bozketa bat egiteagatik auzipetu izana salatu du, «demokratikoki hartutako erabakiak gustatzen ez direnean hauen zentzua aldatzeko epaitegietara jotzea ez da onargarria». Mankomunitateko lehendakariaren isiltasuna «defizit demokratiko larria» dela esan dute, «herri ordezkariak babesgabetasun egoera batean» jarriz. «Horregatik Enirio Aralar Mankomunitateko lehendakariari hirugarrenez eta publikoki eskatzen diogu: gure eskariei lehenbailehen erantzun diezaiela eta auzipetuon babes juridikoaren kostu ekonomiko Mankomunitateak bere gain har dezala».

Enirio-Aralar Mankomunitatea toki erakunde bat da eta hamabost udalerrik osatzen dute, tartean eskualdeko 5; Abaltzisketa, Amezketak, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain. Bere eginkizun nagusia bertako basoak eta goi larreak mantentzea eta kudeatzea delarik.



Gabon egunean etxez etxe kantuan aritu ziren Berastegin. I.S.A.

# Gabonetako egunek eman dutenaz gozatzen

Kantuan, eskean, desfilean, mahaiaren bueltan edota ahal bezala ospatu dituzte Gabonak eskualdeko herri guztietan

## Irati Saizar Artola

Amaitu dira Gabonak, eta amaitu dira oporrak ere. Gabon eguna ospatzearekin hasi eta Errege eguneraino luzatu dituzte hainbatek jai egunak. Egun horietan, Gabonen bueltako festa izan da nagusi, eta jai egun horietako tradizio zein ohituretan murgildu dira eskualdeko herri asko.

Gabon eguneko eskearekin batera iritsi ziren Olentzero eta Mari Domingi herri askotara. Gozoki zein opariak banatzen pasa zuten eguna. Izan da, ordea, opariak jasotzeko eguna Errege egunera luzatu duenik. Esaterako, Iurreamendi Zaharren Egoitzakoak. Hiru Errege magoen bi-

sita izan zuten Tolosako Alde Zaharrean desfilea egin aurretik.

## OLENTZEROREN BUELTAOKAK

Elosegi parkeko atea irekita izan dituzte hainbat egunetz Gabonetan, Olentzeroren basoan murgildu ahal izateko. Zumarria elkarteak balorazioa egitekoan esker oneko hitzak izan ditu laguntzaile eta parte hartzaile guztientzat. Guztira, 2.525 lagunek bisitatu dute basoa, eta denera 2.415 euro bildu dituzte.

Bestalde, Amasa-Villabonako Etxeondo baserriaren inguruan, Olentzeroren bidea ezagutzeko aukera ere izan dute 300 bat haurrek. Hor ere, txandak eginez ezagutu dute ibilbidea.



Kantu-erronda egin zuten Gabon egunean, lehen aldiz, Villabonan. J.MIRANDA



Pasa den larunbatean Euskal Herria plazan egindako elkarretaratzearen irudi bat. I. URKIZU

# Ozen oihukatu dute ez dutela eraso matxistarik onartzen

Abenduaren 24an Tolosako Larramendi auzoan gertatutako bortxaketa saiakera gaitzesteko elkarretaratze jendetsua egin zen, larunbatean, Euskal Herria plazan

## Erredakzioa

Abenduaren 24ko gauean eraso matxista bat izan zen Tolosako Larramendi auzoan: gizona bat 19 urteko emakume bat bortxatzen saiatu zen. Ertzaintzan salaketa jarri du jada emakumeak eta zabalik dute ikerketa.

Horren aurrean, elkarretaratze jendetsua egin zuten pasa den larunbatean, Tolosako Euskal Herria plazan, Tolosaldeko Asanblada Feministak deituta. Tolosako Udaleko ordezkariak ere bat egin zuten bilkurarekin. «Saretzeko, indarrak batzeko, ahalduntzeko, autodefentsarako

elkartu gara eta elkartuko gara» esan zuten asanbladako kideek irakurritako testuan. Menderakuntza sistema baten emaitza dela eta ez dela kasualitatea argi utzi zuten. «Baina guk zutik jarraitzen dugu eta borrokan jarraituko dugu matxismoari aurre egiteko».



## HEGAN NOLA EGINARAZI

Asteasuko Usarrabi pilotalekuan dron ikastaroa egin zuten Gabonetako egitarauaren bueltan. Txorien begietatik nola eta zer ikus ote litekeen ikasten aritu ziren, 40 bat gazte, eta eta interesez erantzun zioten teknologia berrietan trebatzeari. Arratsaldean, profesionalek erakustaldiak eskaini zituzten dronekin, pilotalekuan bertan. ITZEA URKIZU



## TOMAS ARNAL ZENDUDA

Tolosako Tomas Arnal Lekuona musikagilea hil zen abenduaren 20an, 89 urte zituela. Hainbat elkartetako doinuen sortzaile lanetan aritu izan zen. *Eup Emendek, San Blas, Euskal Herri maitea, Bihotz gazteak eta Unaitxodoinuak* sortu zituen, besteak beste. ATARIA



## NAGUSIEN PARE

Tolosa&Co elkarteak Erraldoi eta Buruhandien konpartsarekin elkarlanean, erraldoi eta buruhandien tailerra antolatu zuen Gabonetan, ferialekuan. Gurasoek eguberrietako erosketak egin bitartean gaztetxoek erraldoi eta buruhandiak egiten ikasi zuten. Dantzatze ikastaroa ere jaso zuten, eta tailerreko azken egunean, kalera irten ziren egindakoa erakutsi eta kalejira egitera. ATARIA



## KIROL EMAITZAK

## Areto futbola

## BIGARREN B MAILA

## 15. jardunaldia

Otxartabe-Lauburu 5-3

Laskorain-Kukuyaga Etxebarri 4-0

## Saikapena

1. San Juan	33p
2. Otxartabe	32p
3. Auzoak de Zierbena	32p
7. Juventud del Circulo	21p
8. Lauburu Ibarra	21p
9. Laskorain	20p

## Hurrengo jardunaldia

Laskorain (9)-Guardo Deporcy (4)

Juv. del Circulo (7)-Lauburu (8)

## Eskubaloia

## 1. MAILA NAZIONALA

## 14. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia 31

Urban Cabero Barakaldo 23

## Saikapena

1. Trapagaran	25p
11. Tolosa Eskubaloia	11p
12. Somos Eibar Eskubaloia	11p
14. Urduliz Eskubaloia	11p

## Hurrengo jardunaldia

Romo Indupime (13)

Tolosa Eskubaloia (11)

## Futbola

## 1. MAILA NAZIONALA

## 13. jardunaldia

Oiarzun-Tolosa CF 2-1

## Saikapena

1. Bizkerre	31p
11. At Revellin	12p
12. Tolosa CF	12p
13. Logroño B	8p
14. Itaroa Huarte	4p

## Hurrengo jardunaldia

Itaroa Huarte (14)-Tolosa CF (12)

## HIRUGARREN MAILA

## 19. jardunaldia

Tolosa CF-Santurtzi 0-0

## Saikapena

1. Portugalete	39p
15. Tolosa CF	21p
16. Real Sociedad C	20p
17. Urduliz	19p
18. Deusto	18p
19. Cultural de Durango	17p
20. Ariznabarra	9p

## Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (15)-Cul. de Durango (19)

## ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

## 14. jardunaldia

Tolosa CF 'B'-Goierri Gorri 6-0

## Saikapena

1. Leintz Arizmendi 40p

2. Tolosa CF 'B' 34p

3. Intxaurdi 29p

## Hurrengo jardunaldia

Zumaia (12)-Tolosa CF (2)

## ERREGIONAL PREFERENTEA

## 14. jardunaldia

Tolosa CF 'B'-Idiazabal 1-5

Billabona KE-Soraluze 3-0

Zumaia-Danena 3-1

## Saikapena

4. Billabona KE 25p

6. Danena 21p

16. Tolosa CF 'B' 9p

## Hurrengo jardunaldia

Danena (6)-Aloña Mendi (2)

Idiazabal (12)-Billabona KE (4)

Getariako K. (10)-Tolosa CF 'B' (16)

## LEHEN ERREGIONALA

## 15. jardunaldia

Segura Goierri-Intxurre 3-0

## Saikapena

5. Intxurre 20p

## GORENGO MAILA

## 13. jardunaldia

Leintz A. Aloña-Intxurre 4-3

## Saikapena

4. Intxurre 15p

## Saskibaloia

## GIZONEZKOEN 1. MAILA

## 10. jardunaldia

Urgatzi 56

Redline Mekanika TAKE 52

## Saikapena

1. Urgatzi 8-1

2. Universidad Deusto Loiola 7-3

4. Tecnum-Askatuak 7-3

6. Redline Mekanika TAKE 5-4

## Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (6)

Disdira Bitxitegia (12)

## EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

## 7. jardunaldia

TAKE 35

Grupo Eme Oiarso 43

## Saikapena

1. Zast Neskak 6-1

2. Antigua-Luberri 6-1

3. Atletico San Sebastian 6-1

6. TAKE 4-3

## Hurrengo jardunaldia

Ordizia (9)-TAKE (6)

## Lehen itzulia bukatuta, eskualdeko pilotariak gorengo postuetan



Artola eta Iribarria, Tolosako Beotibar frontoian jokaturako Binakako Txapelketaren partidan. I.G.L.

Jaka eta Altuna III.a lehen eta bigarren postuan daude Binakako Txapelketan; Artola, laugarren

## Asier Imaz

Binakako txapelketako ligaxkaren lehen itzulia asteburuan amaitu zen. Eskualdeko pilotariak bi partida irabazi eta bat galdu zuten. Jaka eta Altuna III.a izan ziren garaileak; Artola, gal-tzailea. Zazpi jardunaldiren ondoren, lizartzarra eta amezketarra aurkitzen dira sailkapenaren lehen postuetan. Jaka-Zabaleta ibilbide sendoa burutzen ari dira. Partida bakarra galdu dute eta azken jardunaldian erakutsi zuten bezala, aurkariak erraz gainditzen dituzte. Artola-Imaz 10ean utzi zituzten Tolosako Beotibarren.

Altuna III-Galartza ez ziren ondo hasi. Lehen bi partidak galdu egin zituzten. Ondorengo bostak, ordea, irabazi. Amezketarra sasoi betean dago, eta aurkari beldurra sartzen ari zaie. Azken partidaren 22-14 irabazi zien Bengoetxea VI-Mariezkurrena II.ari.

Artola-Imaz ez daude gaizki sailkapenean. Hala eta guztiz ere, lehen partidetakoa garaipene

nei esker daude laugarren postuan. Orain arte bezala, bigarren itzulian lana egitea tokatuko zaie.

Hurrengo jardunaldia asteburu honetan jokatu da. Ostiralean, urtarrilak 10, Getarian jokatu dute Artola-Imaz eta Laso-Albisu bikoteek. Hurrengo egunean, urtarrilak 11, larunbata, batetik Iruñeko Labriten Ezkurdia-Martija eta Altuna III-Galartza izango dira protagonistak. Bestetik, egun berean, Etxebarrin jokatu dute Iribarria-Rezusta eta Jaka-Zabaleta bikoteek.

## PEÑA ETA URRETABIZKAIA, GORA BEGIRA

Lehen mailan bezala, promozio txapelketan lehen itzulia joan den asteburuan amaitu zen. Hiru bikote daude sei garaipenekin sailkapen buru. Horien artean dago Jon Ander Peña tolosarra, Aranguren lagun duela. Azken partida Tolosan jokatu zuten, Zabala-Ruizen aurka. Peña II.a eta Aranguren erraz nagusitu ziren, 22-12ko emaitzarekin. Bigarren itzuliko lehen partida ostiral honetan jokatu dute Getarian, Alberdi-Salaverriren aurka.

Txapelketa honetan eskualdeko bigarren ordezkaria Beñat Urretabizkaia da. Ikaztegiatarra

## SAILKAPENA

## LEHEN MAILAKO TXAPELKETA

Jaka-Zabaleta 6-1

Altuna III-Galartza 5-2

Ezkurdia-Martija 4-3

Artola-Imaz 4-3

Laso-Albisu 3-4

Iribarria-Rezusta 3-4

Olaizola II-Urrutikoetxea 2-5

Bengoetxea VI-Mariezkurrena II 1-6

## PROMOZIO MAILAKO TXAPELKETA

Agirre-Ezkizoz 6-1

Peña II-Aranguren 6-1

Elordi-O. Etxeberria 6-1

Egiguren-Erostarbe 3-4

Arteaga II-Urretabizkaia II 2-5

Salaberria-Garmendia 2-5

Alberdi-Salaverri 2-5

Zabala-Ruiz 1-6

bosgarren dago, Arteaga II.aren bikotea osatuz. Bi garaipen besterik ez dituzte baina laugarren postua puntu bakarrera dute. Azken partida, gainera, berezia izan zen Urretabizkaiarentzat, Alegian jokatu baitzen, Intxurre Pilota Elkarteak sustatutako jaialdiaren barruan. Emaitza, ordea, ez zen nahi bezain ona izan ikaztegiatarrentzat. 12-22 galdu zuten Salaberria-Garmendiaren aurka. Hurrengo partida Zumaian jokatu dute, larunbatean, Agirre-Ezkizoz liderren aurka.

# TAKen harrobia lantzen jarraituko dute

Tolosaldeko Arraun Klubean aurtengo denboraldian ariko diren arraunlarien aurkezpena egin dute

Josu Artutxa Tolosa

Tolosaldeko Arraun Klubak igande goizean egin zuen 2020ko denboraldiaren aurkezpen ekitaldia. Zerkausion bildu ziren klubeko arraunlari guztiak, entrenatzaileekin, argazkiak ateratzeko. Ondoren, uretara joan ziren, eta erakustaldi moduko estropada egin zuten. 2019 urtea amaitu berritan, denboraldi «ona» izan dela adierazi dute klubetik, bai bateletan, baita traineruan ere. Emaitza onak izanagatik, harrobia lantzen jarraituko dute, eta igandeko ekitaldia horren erakusle izan zen.



Tolosaldea traineruko kideak ere izan ziren Zerkausion egindako aurkezpenean. JOSU ARTUTXA

16 batel izango dira guztira, eta horietan 120 bat arraunlari ariko dira. Lehen estropada urtarrilaren 11n izango da.

TAKetik «balantze positiboa» egin dute, beraz, iazko denboraldiari errepasoa egitean. «Emaitza onak lortzen ditugu eskual-

deko arraunlariekin, bertakoe-kin. Gure altxorra gure harrobia da. Hori da gure oinarria», nabarmendu dute klubetik. Gainera, arraun zaletasuna zabaldu dute Tolosaldean: «Geroz eta haur gehiago dira gurera hurbiltzen direnak arraun egitera, eta

zoragarria da hori! Denboraldi berria ate joka dago, eta berriz ere zabal-zabalik ditugu klubeko ateak. Zerkausi azpian aterpea hartu nahi duen edonork tokia izango du 2020 denboraldian».

Iazko denboraldiko emaitzak errepasatuz, bateletan ondoren-

goa lortu zuten: Gipuzkoako Batel Ligan urre bat eta bi brontzezko domina; Gipuzkoako Txapelketan zilar bat eta hiru brontze; Euskadiko Txapelketan bi zilar eta bi brontze; Espainiako Txapelketan urre bat lortu zuten eta, kontsolazio txandan, onzi bat txapeldun izan zen eta beste bat bigarren postuan sailkatu zen.

Eta noski, nabarmentzeko da bigarren urtez jarraian Tolosaldeko trainerua itsasoko uretan aritu dela. «Ederra izan da itsasorik ez duen eskualde bateko onzia itsaso zabalean arraunean ikustea. Itzalpeko lana egiteko urtea izan da, zehaztasunetara jotzeko eta indarra detaileetan jartzeko», adierazi dute klubetik. ETE Ligan aritu dira Tolosaldeko neskak eta bandera bat astintzea lortu zuten, Kolindresen. Sailkapen orokorrean laugarren postuan gelditu ziren.



## 600 KIROLARI ARETO FUTBOLEAN

Asteburuan jokatu ziren, Tolosako Usabal Kiroldegian, Gabonetako Areto Futbol Txapelketako finalak. Guztira, alebin eta benjamin mailan, 600 bat neska-mutilek jokatu dute bi astetan zehar. Urteroko hitzordua izaten da, eta aurtengoan ere jende ugari izan da harmailetan. JOSU ARTUTXA



## MAIZ TXAPELDUN ETXEAN

Eguberrietan eman zaio amaiera VIII. Antton Pebet Oroimenezko Pilota Txapelketari, Villabonan. Behar Zana Pilota Elkartek antolatutako txapelketa Eneko Maiz billabonatarak irabazi du, Arbizurekin batera Espinal eta Alduntzin bikoteari 22-18 irabazi ondoren. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita  
Gipuzkoako  
3 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



**ASTEAZKENA, 2020KO URTARRILAK 8**  
**Argitaratzailea:**  
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeca Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
 villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
 anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
 alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezero arreta zerbitzua:** 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



## ASTEAZKENA 08

### ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eguneko berriak, Joxemi Saizarrekin Tolosaldeko pertsonaiak, Patxadaz eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.  
**12:00. Entzuteko jaioak.** Musika.  
**16:00. Zebrabidea.** Arrosa sareko magazina.  
**18:00.** Goizeko saioren onena.  
**20:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritzari buruzko saioa.

### 28 KANALA

**13:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**16:30.** Lotsagabe (Nerea Egozkue)  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**21:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**22:00.** Denbora da poligrafo bakarra  
**22:30.** Ajoarriera  
**23:30.** Gaurkoan Tolosaldeko

### FARMAZIAK

#### Gaur

**TOLOSA. Egunkoa.** Ignacio Olarreaga Aramburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

**TOLOSA. Gauekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotzauzoa, 9. 943 67 5118.

### EGURALDIA

#### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Egun osoan zehar eta, batez ere, gau partean zehar hodeigune batzuk agertuko zaizkigun arren, giro argia eta nahiko epela nagusituko da. Haizea aldakor ibilliko da eta temperatura maximoak zertxobait gorago kokatuko dira, 13-15 gradura iritsiz.

**Bihar.** Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro lasaia eta nahiko epela izango dugu, hodei eta ostarteekin eta temperatura maximoak 13-15 graduan kokatuz. Arratsalde erdi eta gau partean euria izango dugu, eta termometroek nabarmen egingo dute behera.

Tolosaldeko Atariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Tolosaldeko hainbat herritan egiten dituzten San Silvestre krosetan ehunka herritarrek hartu dute parte; Asteasun bosgarren urtez egin dute elkartasun krosa.

# Urteari agur lasterka esan diote

### Erredakzioa

**K**irola eginez urtea amaitzeko ohitura oso zabaldua dago, eta baita Tolosaldean ere. Horren adibide dira urteko azken eguneko San Silvestre krosak. Alegian, Berastegin, Ibarra, Lizartza, Villabona, Tolosa eta Zizurkil-en ehunka herritarrek lehiaren gaitetik umorea eta giro ona nagusitzen diren lasterketetan hartu zuten parte. Asteasun, berriz, bosgarren urtean zuten elkartasuna helburu duen krosa, Aiztondoekin senidetutako El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari laguntzeko izaten baita bildutakoa. Guztietako argazki galeriak ataria.eus-en ikus daitezke.



Asteasuko V. Elkartasun Krosean Lourdes Colomo eta Iñaki Sarasua izan ziren azkarrenak. JOSU ARTUTXA

**Ataria bertso jaialdia 2020**

Amaia Agirre Gai jartzailea

Maialen Lujanbio Amets Arzallus Oihana Iguaran Alaia Martin Julio Soto Andoni Egoña

**SARRERAK SALGAI: 12€**

Tolosa: Orbela taberna  
 Villabona: Amasa okindegia

Urtarrilak 18, larunbata arratsaldeko 18:00etan.  
 Tolosako Leidor antzokian

### ZORION AGURRAK



#### Zorionak Nahia!

Urtarrilaren 6an urteak bete zituen Gazteluko Nahia iri zorionak eta ondo pasa familia guztiaren partetik.